

Artzain 11 urtetan

E.: ara, gero, beraz, xu komunioia in-eta, eskola utzi-eta bereala así xira artzain.

B.: ba, ba, etxean. Bazuxun bi oreneko bidian bordalde bat, ta han, han egoiten gazte-gazteik, aita erranak in, bazka ola emak eta ola in, ta antxe.

E.: ta pentsatzen dixit xure adineko mutiko ainitz berdin artzen zirela.

B.: ba, ba, anitzak, hemen gure kartier otan ba, menditan, bazuten denek kasik bordaldiak ola, ta bai.

E.: zonbait urtez, etxeari kontra, bordaldean artzain.

B.: ba, ba.

E.: ordian ze erran nai zuen orrek, noiz egoten zinezten bordaldean?

B.: larrazkenian hasten, azaroain leenian, ardi-bazkatzen, idorra emaiten, biltzen leenik menditik, ta sartu, eta bazka eman, eta geo, taloak in jatekoaindako, ta sua supazterrian, ta geo afaldu ta geo ofeat, ta ola, ori egoiten ginen, bildo... Ardiak erditzen asi artio, ez zien oai bezin goixtiar, urtarril artio an, bordaldian, belarra jan bear baitzien an, ordian ez zen bideik e kartzeko etxeat. Gero in zuzten ba bide puxka atzu, kartzen zien tornu zonbait etxea geo, iten baitzen an gure borda artan belar alde at, ta hola, ta gero berriz martxoan joaiten, azteko bildotsekin eta joaiten haat, geo an egoiten, ola zen orduko moda, oai ez da bordladetan neor e egoiten oai, kabalekin joaiten dira, ta otoa, oai denetan inak dira oto bidiak, otoz joan eta iten tuzte lanak eta etxeat geo, laneat eldu dira oai. Leen aldeat egoiten zen baño han, kabale... Kabalekin.

E.: eta artzain ofizioa aitatik semerat ikasten zen, edo osebatik illobarat...

B.: aitatik, guk aitaekin ta ikasi du, leemixikoak ta ola.

E.: gasna egiten ere pentsatzen dixit.

B.: gero mutil. Ni bosgarrena nintzan, bazien lau ni bano zaarrogokoak, eta zaarrena, gero etxean ezkondu zena, astian, bear baitzen bizi, mutil. Bigarrena arreba zen, ua re joan zen hirira ta sehi, ta irugarrena mutikoa, hua re mutil, ola, ta gu ttipiekin, aita azkar baitzen ono, iten gintin lanak etxeakoak aitaekin, bear baitzen irrazi sos kotsia. Ola zen orduko moda emen, ta goztik denak kanbiatiak dira oai. Oai ez du balio esplikatzia re, ez dute siñetsiko gaztek.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala